
ENPLEGU ATARI bat egiteko
kontratazio prozedurarako
OINARRI TEKNIKOEN AGIRIA,
enplegu atariaren webgunea eta
webguneari lotutako datu basea
garatzeko.

1. SARRERA
2. KONTRATUAREN XEDEA
3. PROIEKTUAREN IRISMENA
4. ENPLEGU ATARI BAT EGITEKO METODOLOGIA (faseak)
5. AURKEZTU BEHARREKOAK
6. LANTALDEA
7. PROIEKTUAREN KUDEAKETA
8. ESKAINTZA TEKNIKOEN EDUKIA:
 - a. Proiektuaren egoera eta ikuspegi orokorra ulertzea; helburuak eta irismena, enpresa lizitzaileak proiektuan sartu beharrekotzat jotzen dituen eta proiektuaren irismenetik kanpo dauden eremuak zehaztea.
 - b. Proiektua gauzatzeko planteamendu metodologikoa; plangintza xehatua, gauzatzeko kronograma eta proiektuaren kontrola eta jarraipena egiteko eredua sartuta.
 - c. Enpresek aurkeztutako hobekuntzak lizitazio honen jatorrizko planteamenduari dagokionez.
 - d. Proiektuko lantaldea. Proiektuko lantaldea identifikatzea, rolak, curriculumaren aipamen laburra, eta agirian adierazitako profilen eta espezializazio arloen arteko lotura.
 - e. Web tresna diseinatzea: datuak sartzeko formatuak diseinatzea (galdetegiak, formularioak eta abar). Formatu irisgarriak diseinatzea, eskuarki onartutako parametroei jarraikiz.
 - f. Datu base irisgarria eta barne langileek kontrola egiteko formatuak diseinatzea.
 - g. Sarrerako memoria, informazioa prozesatzeko tresnen bidezko datuen prozesamenduaren diseinua.
9. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK
10. BERDINTASUN KLAUSULA
11. DATUAK BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA
12. GAUZATZEKO EPEA

1. SARRERA.

DEMA - ENPRESA GARAPENA (hemendik aurrera DEMA - ENPLEGU ETA EKINTZAIETZA FORU AGENTZIA) enpresa garapenari laguntzeko elkartearen funtsezko zeregina Bizkaiko enplegua, ekintzailtza eta enpresen sarea sustatzeko programak kudeatzea da.

3

Bizkaiko Enplegu eta Ekintzailtza Foru Agentziak planteamendu bat egin du, eta, horren bitartez, lizitazio honetan lortu beharreko zenbait helburu ezarri dira, hala nola funtzionalitate zehatzak dituen webgune bat konfiguratzeko: webgune bat eta horri lotutako datu base bat garatzea, gorago Agentziaren helburutzat zehaztutako xedek lortzen lagunduko dion zerbitzua emateko jendeari.

2. KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea proiektu bat garatzea da; hain zuzen ere, enplegua eta ekintzailtza sustatzeko atari bat, baliabide publiko eta pribatuak zentralizatuko dituen, eta orientabidea emango diona pertsonen, erakundeen eta erakunde publikoen honako hauek lortzeko: Administrazioak prestatzen dituen programak optimizatzea; pertsonen zuzendutako baliabideak aurkeztea, betiere laneratzea eta ekintzailtza sustatzea lor dezaten; eta, azken batean, pertsona bakoitzak nork bere lanbideko eta prestakuntzako karrera bideratzeko edo birbideratzeko aukerarik onenak aurkitzea programa eta ekimen publiko eta pribatuen barruan.

Hori guztia herritarrentzako zerbitzu integralaren, etengabeko hobekuntzaren eta baliabide publikoen optimizazioaren ikuspegitik begiratuta, gardentasunaren ikuspegia txertatuta eta baliabide publikoak eskuratzeko berdintasuneko eta irisgarritasuneko printzipioak errespetatuta.

Helburu nagusitzat honako hau planteatu du DEMAk: herritarrei webgune irisgarri, erabilerraz eta intuitibo baten bitartez aurkeztea, edozein pertsonak erabiltzeko moduko formatu oso gertukoarekin. Webgune horren bereizgarrietako bat erabiltzeko erraza izatea izango da. Horrek esan nahi du nabigatzeko sistema erraza eta argia izan behar duela. Datuak biltzeko ibilbideek ere arinak izan behar dute, hizkera erraza erabili, eta datuak behar bezala betetzeko laguntzak ere eskaini behar dituzte.



Hori guztia arrakasta maila handia lortzearren ataria erabiltzeko interesa duten herritarren artean; horretarako, irisgarritasuna sustatzeko eta pertsonak ahalik eta ondoen orientatzeko beharrezkoak diren baliabideak erabiliko dira, programa horietan interesa izan dezaketen herritarren artean arrakasta maila handia lortzeko.

Webgune horrek gune publiko bat izan behar du –edonor sartzeko modukoa–, eta orientabidea emateko, prestakuntzarako edo aholkularitza orokorrekoak izan daitezkeen baliabideez elikatuko da; horretaz gain, deialdi publikoen berri eman behar du, eta pertsonak erakartzea eta gune pribatuan izena emanaraztea izango da webgunearen helburu nagusia, pertsona bakoitzaren beharretara bideratutako zerbitzu hobea eskaini ahal izateko.

Eta gune pribatuari dagokionez, ezaugarri nagusia zera izango da, pertsonak funtzionaltasun posible guztiak erabil ditzaten lortzea, ibilbide praktiko biziko tresna erabilgarria izan dadin. Eta jardunaren xede diren pertsona zehatzek ahalik eta orientabide eta aholkularitza zehatzena eskura dezaten lortzea, prestakuntzari eta laneko esperientziari lotutako parametroen arabera. Plataformak aurrez hautatutako laneratze ibilbideak aurkeztuko dizkio erabiltzaileari, eta, horretarako, pertsona horren fitxako datuak erabiliko ditu.

3. PROIEKTUAREN IRISMENA.

Proiektu honen edukian honako jarduera eta elementu hauek sartzen dira:

- Herritarrei laneratzeko eta prestakuntzako irtenbideak aurkezteko webgune bat diseinatu, garatu eta ezartzea, agiri tekniko honetan adieraziko diren ezaugarriak betez.
- Webguneari lotutako datu base bat diseinatu, garatu eta ezartzea, webgunean sartutako datuak kudeatu ahal izateko, baita datu base

hori kudeatzea ere, agiri tekniko honetan adierazitako ezaugarriak betez.

- Datuen prozesamenduan oinarritutako kudeaketa sistema bat diseinatu, garatu eta ezartzea, pertsona bakoitzaren ezaugarriak lotzeko aukera emango duena, haren interesekoak izan daitezkeen aukerak, baliabideak edo informazioa proposatzeko.

Proposatutako helburuak lortzeko, CRM baten antzera jardungo duen datu base bat sortzea planteatu da; bertan sartu ahal izateko, webgune batean erregistratu beharko du jendeak, hainbat eremu bete eta sistemak egingo dizkion galderari erantzun, ahalik eta profil zehatzena lortu arte. Hartara, profil hori aplikazioan eskuragarri dauden programekin kontrastatu ahal izango dugu.

Horrela, orri nagusi bat izatea aurreikusten da, dagozkion azpiatalekin, eta barneko lau kontrol panel izango ditu, hartzaileren arabera:

- Lehenik, aurkezpen orokorra egiteko webgunea; gune publiko bat izango du, eta pertsonak eta enpresak erregistratzeko aukera eskainiko du. Webgune hori front-office bat izango litzateke, pertsona fisikoentzako aginte koadroarekin batera.
- Bigarrenik, gune pribatu bat, ataria erabiltzen duten erregistratutako pertsona fisikoen profila kudeatzeko. Gune horretan, beren profila sortu eta datuak editatu ahal izango dituzte.
- Hirugarrenik, kudeaketarako gune bat, antolatzen diren programetan parte har dezaketen erakunde eta enpresentzat.
- Laugarrenik, back office aginte taula DEMArentzat. Bertan, estatistikak eta txostenak kudeatu eta lortu ahal izango dira eta, proposatutako programak ez ezik, plataformaren funtzionamendua bera ere gainbegiratu ahal izango da. Hori guztia etorkizunean egin beharreko hobekuntzak edo aldaketak aztertu eta definitu ahal izateko.

Behin-behinean **“ENPLEGUAREN ATARIA”** izena duen plataforma, beraz, honela eratzen da: webgune bat, eta horri lotutako datu base bat; datu baseak CRM (Customer Relationship Management) edo bezeroekiko harremanak

kudeatzeko sistema gisa jardungo du –kasu honetan, herritarrekiko harremana kudeatzeko egokituta egongo da–, eta webguneari formulario espezifikokoak betez lotuko zaio.

Aplikazioa diseinatu eta datuak biltzeko formularioei lotu ostean, hainbat jarduera egiteko aukera emango du:



Atariaren erabilerari berari buruzko informazioa eta plataformatik kudeatzen diren jardueretan parte hartzeari buruzko datuak erabiltzaileen arreta hobetzeko erabiliko ditu lantalde arduradunak. Horrek ez du esan nahi erabaki automatizatuak hartuko direnik, ezta pertsona zehatzak eskubideez gabetuko direnik ere. Izan ere, aukera hori hobekuntzatzat proposatu da, jendeari laneratzeari, prestakuntzari edo ekintzailtzari buruzko erabakiak hartzen laguntzeko baina, aldi berean, eskuragarri dauden baliabide guztiak eskuratzeko aukera eta erraztasunak emanez jendeari.

Lizitazio honetan sartzen dira, era berean, datuen azterketa eta plataformarako ikaskuntza tresnak txertatzea, betiere jendearen aukerak hobetzera bideratuta badaude; eta pertsonen prestakuntza eta laneratzea edo ekintzailtzako aukerak hobetzen badituzte, ongi etorriak izango dira.

Atalen arteko elkarrenergina ere oinarritzotzat jotzen da.

Profilean datuak biltzearen helburua DEMArri lehentasunak ezartzeko aukera ematea da, laneratzeako zerbitzuak orientatzeko garaian. Horretarako, funtsezkoa izango da izena eman dutenen ezaugarri akademikoei eta profesionalei buruzko datu estatistikoak lortzea.

Proiektu honen helburu nagusietako bat da interesdunei erregistroko formulario osatua, egokitua eta betetzeko erraza aurkeztea, baita irisgarria ere, eta proiektuan parte hartzen duten pertsonen ezaugarriak proiektuan bil daitezkeen programen ezaugarriekin lotzeko aukera ahalbidetu behar du.

4. METODOLOGIA ETA GARATU BEHARREKO EDUKIA.

Lizitazio hau lortu nahi duten enpresek proiektuaren alderdi guzti-guztiak nola prestatuko dituzten azaldu beharko dute beren proposamenean, ez baitago loteen deskribapenik, eta gauzatzeko kronograma bat zehaztu beharko dute, kontratua formalizatu eta, gehienez, 6 hilabeteko epean egin ahal izateko proiektua. Epe hori amaitutakoan, proiektuaren bertsio osoa eduki beharko genuke, ezarrita eta funtzionamenduan.

7

Proiektu honetan, honako elementu hauek prestatu eta gauzatzeko kronograman jaso behar dira:

- Webgune orokor bat prestatzea, elementu hauekin:
 - o Erabiltzaileek **newsletter bat jasotzeko harpidetzaren diseinua**.
 - o DEMArekin lankidetzan jarduten duten eta sektorekoak diren erakundeek garatzen ari diren **programen iragarkiak sartzeko aukera**, betiere DEMAk onartuta eta gainbegiratuta.
 - o **Enpleguaren eta ekintzaitzaren sektoreko berriak sartzeko aukera**. Berriak gehitzeko eta kudeatzeko tresna back-office edo barne kudeaketako koadroa izango da –aurrerago azalduko dugu nola diseinatu behar den–; nolana ere, berrien ikusgarritasunaren iraugitzealdia bildu behar du.
 - o **Prestakuntzako edo dibulgazioko prozesu laburrak sartzeko aukera, baldin eta intereseko arloetako berriazko prestakuntza badute xede**. Atal horretan, prestakuntzako formatu laburrak (ikus-entzunezkoak) aurkeztuko dira eta, izena eman edo egin ondoren, eta baldin eta pertsona erregistratuta badago, pertsona bakoitzaren informazioari erantsiko zaio informazio hori. Aurreikusi behar da, halaber, erakundeak back-officeko aginte koadrotik atera ditzakeela prestakuntzako jarduerak etengabe kudeatzeko beharrezkoak diren estatistikak.
 - o **Informazio instituzionala sartzeko aukera**, jarduketaren edo estrategiaren ildo nagusiak aurkezteko, edo albisteak eta bideoak aurkezteko.
 - o **"Autoenpleguari buruzko informazioa" atala sartzeko aukera**; atal hori ere backoffice koadrotik kudeatu beharko litzateke,

eta aholkularitza pertsonalizatuko formatuak edo beste zerbitzu batzuk ere izan beharko lituzke. “Erregistrorik gabeko” zerbitzua da, jendea “erregistratu beharreko” ataletara erakartzeko asmoz.

- **Enplegurako edo autoenplegurako laguntzen deialdi publikoetako iragarkien atala..**
 - **"Eman zure esperientziaren berri"** izena duen atal bat gehitzeko aukera. Atal horretan, pertsona zehatzek programa edo esperientzia zehatzak egiten izan duten esperientziarekin lotutako elkarrizketak, lekukotzak, bideoak edo elementuak sartuko lirateke, interesa izan dezaketen beste pertsona batzuei erakutsi ahal izateko nola egin dieten aurre laneratzeko/bideratzeko/autoenplegua egiteko prozesuei. Atal horretan, jendearen esperientzia zehatzak azaltzen dituzten ikus-entzunezko edukiak kargatzeko formatu bat diseinatu beharko da.
 - **"Harremanetan jartzeko" edo horren antzeko atal bat** eransteko aukera: Atal horretan, modu pertsonalizatuan harremanetan jartzeari dagozkion atal guztiak bilduko lirateke.
 - **Beste atal batzuk txertatzeko aukera, betiere proiektua gauzatzeko aldian** eta aukerak garatzeko garaian DEMAk egoki iritziz gero.
- Webgunearen hasierako atal horretan bertan, **erabiltzailea eta pasahitza sartzeko** atal bat txertatu behar da, erregistratuta dagoen pertsona bere gune pribatura eramateko.
- **Erregistratutako erabiltzailearentzat aginte koadro bat egitea.** Proiektu honen beste helburuetako bat erregistratutako erabiltzailearen gune pribatu bat garatzea da; izena emateko prozesu osoa burutu duen edozein pertsona hartuko da erregistratutako erabiltzaileentzat. Erregistratzeko prozesuaren azken urratsa erregistro formularioan datuak sartzea da, eta pertsona hori erregistratutako erabiltzaileen komunitatean sartzea eragingo du. Formularioak erraza izan behar du, erabiltzaileak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabiltzeko duen trebetasun maila gorabehera. Menu zabalgarriak, hautatzeko elementuak edo bestelako elementuak erabiltzea gomendatzen da, betiere erabiltzaileak formularioa erraz bete dezan.

Datuak sartzeko ibilbideak pertsonaren prestakuntza akademikoari eta lan esperientziari buruzko informazioa bildu behar du.

Eta aurkezpen formatu horretan, jendeak iradokizunetako bat edo batzuk onartzeko edo ez onartzeko aukera izango du.

Emaitzak aurkezten direnean, jendeak aurkezten zaizkion proposamenekiko interesa erakutsi ahal izango du gero ere, proposamen horiek proposatu zaizkion programa edo formatuekin –barnekoak zein kanpokoak izan daitezke– lotuz.

- **Backoffice aginte koadroa egitea:** Atal horretan, atariaren administratzaileentzako aukerak eta baliabideak sortuko dira; administratzaile horiek Agentziako teknikariak edo Agentziak erabakitako pertsonak izango dira. Backoffice atal hori ere irisgarritasunaren eta funtzionaltasunaren irizpideen arabera ez ezik, intuitiboa ere izango da. Alde batetik, datu estatistiko anonimizatuak lortzeko funtzionalitateak txertatu behar ditu, plataformaren erabilera mailen berri izan ahal izateko; horretarako, erabiltzaileei aurkezten diegun menuaren oso antzekoa izango du, eta, gainera, denbora eskema bat ere eskainiko du, datu basetik zuzenean estatistikak atera ahal izateko, erakundeak dituen analisi beharren arabera.

Horretaz gain, aginte koadro horri esker, erakundeak berak erabiltzaileei zuzendutako programak kargatu ahal izango ditu. Aginte koadroak, gainera, beste eduki mota batzuk kargatzeko aukera ere eman behar du, hala nola artikuluak, beka programen iragarkiak, laguntzak eta abar.

Proiektu hau proiektu dinamikotzat planteatzen da eta, beraz, enpresa adjudikaziodunak prestatuta egon behar du proposatutako planteamenduan aldaketak egiteko, ezarpen prozesuan.

Laugarrenik, erakundeentzat aginte koadro bat egitea aurreikusten da eta, horren esparruan, kudeatzen dituzten jardueri buruzko datuak sartu ahal izango dituzte, erabiltzaileak erregistratu eta abar.

Aginte koadro horretan sartzeko, erakundeak aldeztu behar du aurretik baimenduta egon behar du.

Aginte koadroak bi atal izango ditu.

Lehenengo atalean, aktibo dauden laneratzeko ibilbideetarako izena emateko formulario bat aktibatu ahal izango dute erakundeek.

Bigarren atalean, erakundeak berak abian jarritako programa bat sisteman kargatzeko aukera egongo da.

5. AURKEZTU BEHARREKOAK.

Proiektu honetan, enpresa adjudikaziodunak honako dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu:

- Proiektua gauzatzeko kronograma, arduraduna zehaztuta.
- Garapen taldeak eta DEMAk kontratazioaren jarraipenerako egindako bileren deialdiak eta aktak.
- Egiten den garapenari buruzko dokumentazio teknikoa, garapenaren bilakaeraren une bakoitzeko aurrerapen mailak adierazita.
- Webgunearen edukia, webgunea bera guztiz amaituta dagoela: Webgunea enpresa adjudikaziodunaren kontrolpeko probako ingurune batean kokatu ahal izango da eta, gero, dagozkion probak kudeatu ostean, DEMAk adierazitako tokian ostatatuko da.
- Datu basea, enpresa adjudikaziodunarekin adostutako formatuan eta DEMAk adierazitako plataforman edo gunean ostatatuta.
- Bai webgunea, bai webguneari atxikitako datu basea DEMAk adierazitako gunean edo plataforman ostatatuko dira.
- Datu basearen formatuan zein webgunearen formatuan garatzen den softwarea DEMAren izango da.

6. LANTALDEA.

Lantaldean honako profil hauek, gutxienez, egongo dira:

- **Proiektuaren zuzendaria:** proiektuaren zuzendaria funtsezko lotura elementua da kontratu hau gauzatzean; proiektuko Idazkaritza Teknikoarekiko harremanen arduraduna eta proiektuaren

garapenaren jarraipen batzordeko kide izango da. Unibertsitateko prestakuntza teknikoa duen pertsona bat behar da, webguneak diseinatzen eta lotutako datu baseak diseinatzen espezializatua dagoena eta gutxienez 5 urteko esperientzia duena antzeko proiektuen zuzendaritzan.

- **Profil teknikoa (1 eta 2):** teknikariek zeregin orokorrak egingo dituzte: aurre-diseinua, plangintza, diseinua, ezarpena, informazio fluxuen diseinua, datuak sartzeko formatuen kategorizazioa eta datuen prozesamenduaren definizioa, kalitate kontrola, berrikuspena, abian jartzea, plataforma kontrolatzea eta kudeatzea, eta, oro har, laguntza teknikoa proiektuaren fase guztietan. Prestakuntza teknologikoa (ingeniaritza) eta antzeko proiektuak garatzen eta ezartzen esperientzia duten pertsonak behar dira. Zeregin horiek beteko dituzten pertsonak gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute lan horiek egiten.
- **Webgunea garatzen duen teknikariaren profila:** profil horrek prestakuntza teknikoa izan beharko du, eta profil hori betetzen duen pertsona arduratuko da enpleguaren atariko webgunea egiteaz, diseinatzeaz, edukiak prestatzeaz, programatzeaz eta edukiak kargatzeaz. Profil horrek gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko du horrelako zereginetan.
- **Datu basea garatzen duen teknikariaren profila (1 eta 2):** profil hori arduratuko da webgunetik datuak sartzeari lotutako datu basea garatzeaz, eta, era berean, proiektu honek lortu nahi dituen helburuekin lotutako prozesu guztiak diseinatzeaz ere arduratuko da; horretarako, datu baseko datuen prozesamenduaren diseinua egingo du, erabiltzaileen datuak aztertzeke prozesua diseinatu eta gauzatu, eta jendeari ondorioak aurkezteko prozesua ezarriko du.

7. PROIEKTUAREN KUDEAKETA.

Proiektua kudeatu eta programatu ahal izateko, proiektuan sartutako pertsonen profilek sartuko dituzten orduen kalkulua egin behar da.

Profil eta arduraldi horiek egokitu edo aldatu ahal izango dira proiektua egiten den bitartean, eta proiektua kudeatzeko baterako Batzordeak aldez aurretik onartu beharko ditu beti aldaketa horiek.

BATZORDEA: DEMAko Idazkaritza Teknikoak eta enpresa adjudikaziodunak proiektua zuzentzeko izendatutako pertsonak osatuko dute proiektua kudeatzeko batzordea. Batzorde hori hilean behin, gutxienez, bilduko da eta, bertan, proiektuaren aurrerapenak aurkezteaz gain, proiektuaren plangintza eguneratuko da, betiere entregatzeko, abian jartzeko edo bestelako gertaera garrantzitsuen datak egokituta.

12

Jarraian, proiektuan garrantzitsuak diren gertaerak jasotzen dira, baita proiektuko arduraldiaren plangintza ere, ordutan. Proiektuaren gertaera garrantzitsuak formatu dinamikoarekin planteatzen dira; hori horrela izanik, kalkulaturako orduak eta benetan sartutako orduak bat ez badatoz –sobera geratu direlako—, ordu horiek aurreragoko gertaera garrantzitsuetan erabili ahal izango dira, betiere proiektua kudeatzeko Batzordearen oniritziarekin.

Hona hemen proiektuaren kudeaketako gertaera garrantzitsuak eta gertaera horietarako arduraldiaren plangintza, ordutan:

- **PLANGINTZA:**

Proiektuburua: 80 ordu

Teknikaria (1): 40 ordu

Teknikaria (2): 40 ordu

- **GARAPENA: INFORMAZIO FLUXUAK PRESTATZEA, DATUAK SARTZEKO FORMATUAK KATEGORIZATZEA ETA PLATAFORMAREN DATUEN PROZESAMENDUA ZEHAZTEA:**

Proiektuburua: 80 ordu

1. teknikaria: 30 ordu

- **PROGRAMAZIOA:**

Proiektuburua: 20 ordu

Webgunea garatzeko teknikaria: 400 ordu

Datu basea programatzeko teknikaria (1): 400 ordu

Datu basea programatzeko teknikaria (2): 400 ordu

- **PROBAK ETA AURRERAPENAK AURKEZTEA:**

Proiektuburua: 80 ordu

Teknikaria (1): 50 ordu

Teknikaria (1): 50 ordu

- **EZARPENA:**

Proiektuburua: 90 ordu

Teknikaria (1): 140 ordu

Teknikaria (2): 140 ordu

- **ABIAN JARTZEA:**

Proiektuburua: 80 ordu

Teknikaria (1): 80 ordu

Teknikaria (2): 80 ordu

Taldeburuaren orduak, guztira: 430 ordu

Teknikarien orduak, guztira: 1.850 ordu

Prezioak, gutxi gorabehera:

Orduko prezioa taldeburuaren kasuan: 75 euro/ordu.

Orduko prezioa teknikariaren kasuan: 45 euro/ordu.

8. ESKAINTZA TEKNIKOEN EDUKIA.

Programak ahalbidetu behar dituen funtzionaltasunak bi helburutan oinarritzen dira:

- Pertsona, erakunde eta enpresei menu bat eta aginte koadro bat aurkeztea, egokitua, funtzionala eta erakargarria, parte hartu ahal izan dezaten eta parte hartzera gonbidatzen eta bultzatzen duena.
- Datu base erlazionalaren (CRM) funtzionaltasunak garatzea, alde batetik, parte hartzen duten pertsonen interes eta ezaugarriak eta, bestetik, DEMAren eta erakunde horien programak lotuko dituzten prozesuak egin ahal izateko.

14

Plataformaren eginkizun nagusia zera da, erregistratutako jendeari DEMAk kudeatzen dituen edo DEMAekin lankidetzan kudeatzen diren laneratzeko zerbitzuetarako sarbide erraza eta zentralizatua ematea.

Horretarako, DEMAko teknikariek eta erakunde laguntzaileetako teknikariek datuak behar bezala sartu beharko dituzte, eta datu horiek ahalik eta zehatzenak izan beharko dute.

Enpresa lizitatzailleak aurkezten duten edozein aurrerapen tekniko behar bezala aurkeztu eta azaldu beharko da enpresek aurkeztutako proposamenaren memoria teknikoetan.

AURKEZTU BEHARREKO EDUKIAK: Printzipioz, zenbait eduki komun diseinatu dira aurkezten diren proposamen guztietarako, eta jarraian adierazten den bezala baloratuko dira:

- a. Proiektuaren egoera eta ikuspegi orokorra ulertzea; helburuak eta irismena, enpresa lizitatzailleak proiektuan sartu beharreko zat jotzen dituen eta proiektuaren irismenetik kanpo dauden eremuak zehaztea: 10 puntu, gehienez.
- b. Proiektua gauzatzeko planteamendu metodologikoa; plangintza xehatua, gauzatzeko kronograma eta proiektuaren

- kontrola eta jarraipena egiteko eredua sartuta: 7 puntu, gehienez.
- c. Enpresek aurkezten duten tresnaren bilakaera aukerak, lizitazio honen jatorrizko planteamenduari dagokionez: 8 puntu, gehienez.
 - d. Proiektuko lantaldea. Proiektuko lantaldea identifikatzea, rola, curriculumaren aipamen laburra, eta agirian adierazitako profilen eta espezializazio arloen arteko lotura: 6 puntu, gehienez.
 - e. Web tresna diseinatzea: datuak sartzeko formatuak diseinatzea (galdetegiak, formularioak eta abar). Formatu irisgarriak diseinatzea, eskuarki onartutako parametroei jarraikiz: 8 puntu, gehienez.
 - f. Datu base irisgarria eta barne langileek kontrola egiteko formatuak diseinatzea: 8 puntu, gehienez.
 - g. Sarrerako memoria, informazioa prozesatzeko tresnen bidezko datuen prozesamenduaren diseinua: 8 puntu, gehienez.

Ebaluatu beharreko puntuak, guztira, formularik gabe: 55.

9. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK.

Enpresa adjudikaziodunak Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan xedatutakoa bete beharko du. Dekretu horren bidez ezartzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak. ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardura-eremuan, bai eta bi hizkuntza ofizialen erabilera zuzenari dagokionez ere.

Hori dela eta, azaldutakoarekin, kontratuaren arduradunak enpresa adjudikaziodunari adieraziko dio zein lan aurkeztu behar dituen bi hizkuntza ofizialean. DEMAK ez du bere gain hartuko kontratu honen ondorioz sortutako idatzizko dokumentuen itzulpenik.

Nolanahi ere, webgunea eta webguneko eduki guztiak bi hizkuntza ofizialetan egongo dira (gaztelaniaz eta euskaraz), eta edukien eguneratzea eta mantentzea bi hizkuntzetan kudeatzeko prestatuta egongo da.

10. BERDINTASUN KLAUSULA.

Errespetatu beharreko funtsezko araua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Agindua izango da.

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko legezko betebeharra. Kontratatik, kontratua indarrean dagoen bitartean, bere gain hartzen du emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko betebeharra, Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera. Era berean, berdintasun plana baduela egiaztatze konpromisoa hartzen du, baldin eta horrelako planik izateko betebeharra badu legez (250 langiletik gora) edo hitzarmen bidez, eta hori kontratuaren arduradunaren aurrean egiaztatuko du, hark hala eskatzen dionean, noiznahi kontratua indarrean dagoen bitartean, edo, nolanahi ere, azken faktura igorri aurretik.

Kontratua gauzatzean, enpresa kontratatik edo azpikontratatik emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko du tratuan, enplegua eskuratzean, sailkapen profesionalean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, iraungipenean, ordainsarrietan, laneko kalitate eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan.

Jazarpena prebenitzeko eta arlo horretako erreklamazioak bideratzeko legezko betebeharra.- Kontratatik, kontratua indarrean dagoen bitartean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 48. artikuluan ezarritakoa betez, bere gain hartzen du sexu jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena saihesteko lan-baldintzak sustatzeko betebeharra, bai eta prozedura bereziak ezartzeko betebeharra ere, horiek prebenitzeko eta halakoak jasan dituztenen kasuan kasuko salaketa eta erreklamazioak bideratzeko. Era berean, kontratuaren arduradunaren aurrean betebeharr hori betetzen duela egiaztatze konpromisoa hartzen du, hark hala eskatzen dionean, noiznahi kontratua indarrean dagoen bitartean.

Estereotipo sexistak saihesteko betebeharra. Kontratua gauzatzean sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztian, enpresa edo erakunde adjudikaziodunak, bai eta azpikontratatistak ere –halakorik balego– hizkuntza ez-sexista erabili beharko du, emakumeen irudi diskriminatzaile oro edo estereotipo sexistak saihestu beharko ditu, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta genero identitate eta rol aniztasunaren balioak dituen irudia sustatu beharko du. Kontratazio organoak izendatutako kontratuaren arduradunak aztertu beharko ditu aurkeztu beharreko dokumentazio guztia eta webguneak, horiek erabiltzen eta zabaltzen hasi baino lehen.

Enpresa adjudikaziodunak betekizun horiek betetzen direla egiaztatu beharko du DEMAk ezartzen duen epean.

11. DATUAK BABESTEARI BURUZKO KLAUSULA.

Enpresa adjudikaziodunak arreta berezia eman behar dio erabiltzaileen datu pertsonalen kudeaketari, proiektuan informazio pertsonal asko kudeatzen baita.

Ido horretan, enpresa lizitzaileak datuak kudeatzeko plan bat definitu beharko du, fluxuak eta sarbide mailak zehatz definitu beharko ditu, eta erabiltzaileen kategoriak zehaztu beharko ditu, back-officean oinarrituta; proiektuaren funtsezko elementuak dira horiek.

Idazkaritza Teknikoak gainbegiratuko du enpresa lizitzaileak babesak eta mugak ezartzen dizkiola proiektuan datu pertsonalen erabilerari, eta datu horiek bermatu egin beharko dira berme zehatzak emanez. Berme horiek enpleguaren ataria egin, kargatu eta mantentzeko kontratatutako enpresari eskatuko zaizkio.

Segurtasunari dagokionez, enpresak egokitzen jotzen duen segurtasuneko aukera bat eman beharko du eta, aurkezten duen eskaintza ekonomikoan, hautatutako aukeraren lizentzien kostua adierazi beharko du, berezita, balora daitezten; proposamen teknikoan, berriz, egindako

aukeraketaren zergatia azaldu beharko du, baita zer alde on dituen ere, webgunea eta datu basea babesteari dagokionez.

Era berean, segurtasun neurri egokiak ezarri beharko dira informazioa eskuratzeari dagokionez eta sarbiderako hainbat profil ezartzeko aukerari dagokionez, betiere erakundeak ezartzen dituen eginkizunen, mailaren edo lanpostuaren arabera.

12. GAUZATZEKO EPEA.

Gauzatzeko aldi baterako aurreikuspeni dagokienez, proiektua sei hilabeteko epean burutu beharko litzateke, gutxi gorabehera. Horretarako, kontratua kontratatze eta adjudikatzeko prozesua aintzat hartuta, eta adjudikaziorako eskatu beharreko aldiak planifikatuta, 6 hilabeteko epea izango da gauzatzeko, betiere kontratua formalizatzen denetik hasita.

Epe laburragoan gauzatzeak proiektuaren kalitatea arriskuan jarriko luke, baita proiektuaren ezarpen egokia ere.